

Biolentzia, biolentziak

Joxe A. Otaegi

Euskadik mila problema diferente dauka; bat, biolentzia. Batzuk enpeinaturik dabilta, Euskadik orain daukan lehenengo problema, ETA dela, ez besterik.

ETAren problema eta biolentziaren problema ez dira gauza bera. Beharrezkoak dira ohar batzuk honez gero. Kanpaina gora doa.

Galdezka eta galdezka

Euskal Herria ez ote da problema ETA gabe ere, ETA gabe batez ere? Ez al da Euskal Herria egiazko problema, ez biolentzia? Zergatik ez da orduan aipatzen Euskal Herria eta gu-tiago biolentzia?

Zer da, hauteskunde bezperetan berriro orkestatu zaigun biolentziaren sinfonia guzti honekin, nahi dena? UCDEk, biolentzia nahi du akabatu, ala ETA? Vianak, adibidez. Orejak.

Zein sentido dauka, PCEko Lertxundi batek, ETAren biolentzia ez dela etikoa esateak? Zeinek inbentatu du biolentzia etikoa?

Nondik irteten dira KGB eta CIA istorio guzti horiek eta zeinek ematen dio ORTri, momentu justuan botoe hori martxan jartzeko agindua?

Noizdanik Eliza toledanoak inongo elizari leziorik eman behar dio, politika arloetan zer egin?

Biolentzia problema da. Bai, bada. Eta hitzegin beharra dago horretaz gure artean, argitu beharra dago hamaika puntu. Edo ezin badugu ezer argitu, ezintasun horixe erakutsi beharko dugu. Nolabait afrontatu beharra dago problema hori. Baina ez al dago lehenagokorik? Zeinek muntatu du eta zeini zerbitzen dio oraingo kanpaina honek? Hainbeste erasiaz beti biolentziaren problemaz, ez al zaigu beste zenbait problema ahantzerazi nahi, biolentzia baino azpiagoan dagoena, biolentzia ekarri dakarrena?

Bolentzia ez bait du ETAk asmatu.

Baina zeinek dauka hain interes haundia, egunotan atentzio guztia biolentziaren gainean biltzeko eta beste problema denak bazterrean uzteko? Hauteskundeetarakoan, hauzitan dagoena, Gobernu da. Eta Gobernu da eztabaidatzea tokatzen dena. Gobernuak egiazko problemetatik distraitu egin nahi du bakarrik. Kartoiezko erbi bat atera du, egiazko erbia ahantz dezaten kanpaina honetan Alderdi zakurrek. Eta hor doaz, bai, Alderdi zakurrak, xuriak eta gorriak, zaunka eta zalapartaka, kartoiezko erbiari ahausika, sasian ezkutaturik Adolfo barrez dagoela.

Zer nahi du soluzionatu Gobernuak: euskal arazoa ala ETAREN problema?

ETAren problema, ez da dudarik. Ez du inoiz agertu, euskal arazoak asko preokupatzen zuenik, ezta gutti ere. ETAk preokupatzen du. Diru, enpeinu, jende, diplomazia, propaganda, harma, aparatu, astuzia pila ikaragarriak gastatzen ditu Madrilgo Gobernuak, zalantza asko gabe eta denbora tramiteetan galdu gabe, ETAren asuntua behingoan likidatzeko. Ikastolatxo baten subentzioa, ordea, ikaragarritzko problema da, eta hamar mila katramila eta tramite bukaezin sortzen dizu Madrilgo burokrazi-labirintoetan. Demokrazia xeble honetan errazago eta agudoago erabakitzen da polizia tankez dotatzea, mendi-hauzoren batean irakasle euskaldunik izendatzea baino.

Halare biolentzia omen da problema eta Espainia guztiak biolentziaz hitzegin behar du. Problema larriagorik ez dago.

Suarezen Gobernuaz, behintzat, ez dadila hitzegin.

«Terrorismoa»

Badakizu: inauteriotan, krisi ekonomikorik ez dago (ez da problemarik, bozketak lan-egunez egitea). Ez dago parorik. Estaturua? Hori konponduta dago, hutsa falta da. Ez dago Erreferen-

duaren frakasorik. Ez dago elebitasun problemarik. Ez dago ezer. «Terrorismoa» besterik ez dago.

«Terrorismoa»: zer ote da? Terrorismoa bestea biolentzia da beti. Terrorismoa, kanpaina honetan, ETA da. Biolentzia ETA da. Paroak ez du terrorizatzen. Martin Villak ez du terrorizatzen. Estatu demokratikoak ez jakiteak Euskadin bestela presente egoten, uniformeaz jantzita baino, ez du terrorizatzen: polizia bat 222 biztanleko. Euskal Herriaren agoniak berdin-berdin jarraitzeak ez du terrorizatezn. Euskadi desmenbratuak ez du terrorizatzen. Biolentzia administratua ez da biolentziarik. Demokrazia, kilometro koadratuko polizia bat eta erdi egotea da. Presoak Soriausschitzen pilatzea, ordenu zibila. Ipar Euskadiko iheslari-ehizea, kolaborantza demokratiko eredugarri hutsa, beste Estatu europarrek ikasi behar luketena. Prentsa-kanpaina antieuskaldunak gregorianoa dira, *El País*-en histerismoak eta *Cambio* 16-en berrintxe kronikoak.

Bai, biolentzia, ETA besterik ez da.

Eta zer egin ETArekin, *Cambio* 16-ek daki: *para esta peste sólo hay como remedio el matarratas.*

«Biolentziak»

Engainatu egin nahi gintuen eta engainatu egin gaitu, Gobernuak. Kanpaina honek, otsoak beeka eta arkumeak uluka jarri gaitu. Baina sortu bada sortu da, sartu beharra dago eztabaidan.

Alde bat utz genezake, biolentziaren kontra zenbait printzipio alturen izenean esaten dena (horiek eta horien usadioa ere eztabaidatu beharko dira noizpait): ebanjelioaren izenean, humanismo kristauaren, etab. Bistan da, posible direla printzipiozko eta erabateko posturak edozein biolentziaren kontra, «datorren aldetik datorrela». Gure begiramena postura horiei, printzipioek berek ez bada, predikazioaren moduak eta momentuak alderdi denak berdin kondentzen ez dituen arren de fakto.

Alde bat utzi beharrean gaude, halaber, biolentzia —ETA— kondentzera besterik dedikatzen ez direnak, analisirik, ordea, erakutsi gabe, horiek ere golkoan beren analisiak (eta Partido-interesak) izango dituzten arren: Alderdi anitz, eskuineko nahiz ezkerreko —bakearen apostolutara sartu den Carrillo, esate baterako— eta prentsa espainol gehiena. Horiei, beldur naiz, ETA likidatzea iristen bada, bost axola gero euskal arazoa nola kon-

pontzen den. Horiek bakea esaten dutenean, bakearekin ulerzen dutena, ETA desagertzea da.

Biolentziaren *eztabaida* nahi dugu ikusi, on ala gaitzespenetan ibili gabe. Eta eztabaidak bi parte du: biolentziaren kausak, soluzioak.

Kausak: begien bistan dago, analisisen objektoa «biolentzia iraultzailea» dela (ETA). Zuzenean eta lehenik begien aurrean daukaguna, analisisaren objekto direktoa, ETA da. Honen kausak azaltzerakoan bakarrik aipatzen dira, deribazio gisa eta sekundarioki, beste biolentziak, instituzionala eta errepresiboa. Estatu-biolentziak ez bestek digu inposatzen azterketarako perspektiba hori, baina badirudi, hori ez dugula erreparatu nahi. Eztabaida guztiak, beraz, alde zurretik biolentzia bat sofritzen du eta ez da ETArene. Horrexek berak ageri du, Estatuaren terrorea (*ressort du gouvernement*, Robespierrek esango zukeenez), ez dela biolentzia instituzionalera eta errepresibora mugatzen. Pentsabideak berak markatzen ditu.

Halare, ETAKoak zoro kriminal hustzat ez daukatenek, berderen, biolentzia instituzionala eta errepresiboa aipatu dituzte gehienbat «biolentzia iraultzailearen» kausa bezala.

Badakigu hemen zenbait biolentzia instituzional eta errepresibo egon den eta dagoen; eta zenbait sofritu duten umeek eskoletan, etab., euskaldun guztiok, instituzioen nahiz indar errepresiboen tratu txarrez, eta zenbat tragedia dagoen familietan. Ongi dago hori dena gogoratzea. Ez da inoiz aski gogoratuko. Baina arriskua ere badago, dena gorabehera psikologiko lau batetara bihurtzeko: biolentzia, maltratuen emaitza.

Problema psikologikoa ere badago (soluzioak gogoan hartu beharko duena), Madrilek ohartu nahi duen baino gehiago. Baina ezin gera gintezke hor bakarrik. Problema psikologikorik baino gehiago da Euskadiko biolentziaren problema.

Biolentzia historikoa

Biolentzia ETA baino gehiago da. Harmak eta biolentzia, Euskadiko historia moderno guztian daukagu; ETA, ordea, atzo goizekoa da. Oso oker ez bagaude behintzat, Zumalakarregi ez zen ETAKoa, Espartero ez zen UCDkoa, Maroto ez zen PNVkoa. Biolentzia ETArekin identifikatzen dutenek, apropos egiten dute, interes oso jakinekin egiten dute, eta, berei halaxe komeni zaielako, Partido mailan ibili nahi dute: ez histori mai-

lan eta ez Euskal Herriaren traiektoria sozial eta politikoen mailan.

Biolentzia errepresibo eta estrukturalen parean, beste konzeptu bat erantsi beharra dago, Euskadiko biolentziaren problema esplikatuta nahi bada: biolentzia historikoarena.

ARANA GOIRIren historia pertsonalean erakusbideztaenezake hiru biolentzian esanahia. ARANA GOIRIk ez zuen berak biolentziarik erabili, baina bai jasan. Biolentzia errepresiboak preso eduki bazuen, biolentzia estrukturalak, instituzionalak, haren lan guztia itotzen zion, *Euzkeldun Batzokija* aurrera ateratzea eragozten zion esate baterako; euskal abertzaletasunaren hastapenak gate artean lotzen zituen. Baina, biolentzia errepresiboa estrukturalak sostengatzen badu (instituzioek polizia), biolentzia estrukturalari azkenean eusten diona, legitimazioa eta emanetz, biolentzia historikoa da; alegia, oraintxe bertan instituzioen egiazko aldakuntza batetan sinestea oso gaitz bihurtzen digun biolentzia historikoa, politika nazional batetan linea bilakaturia, traiektoria eta lege: eta konzientzietan, tradizioetan, hots, politika bizitzan, oinarrizko «instituzio sekreto» bihurtu den biolentzia historikoaren kontra jaiki zen Sabin, biolentzia estruktural eta errepresibo berezirik berak pertsonalki jasan izan aurretik, «Euskaldunen aberria Euskadi da» oihuka. Problema da, Estatuak ez dela automatikoki gure aberria; Estatuak, ordea, automatikoki bere burua guztion aberri deklaratzeko duela, oraingo, atzoko nahiz biharko instituzioekin. (Konstituzio berriaren 2. art.: «...la indisoluble unidad de la Nación española, patria común e indivisible de todos los españoles, etab.»). Abertzaletasunaren sorrera, sortu beharra, biolentzia errepresiboarekin edo une historiko batetako biolentzia instituzionalarekin esplikatzea, sinplekeria da. Abertzaletasuna, karlistadetako esperentzia luzearen ondotik bakarrik burutu zen. Biolentzia historikoaren kontzientziatara ailegatzearekin eta biolentzia historikoaren kontzientziaz, kontzientzia hori aspaldidaniko historiara ere proiektatuaz gainera (*Bizkaya por su independencia*). Bestela Arana Goirik ez dauka sentidorik. Hots, abertzaletasunak ez dauka sentidorik. Aski zen karlismoa.

Biolentzia historikoaren kontzientzia da orain ere abertzaletasunari eusten diona eta, abertzaletasunaren barruan, «biolentzia iraultzaileari» (PSOE-k ere, biolentzia errepresiboa eta instituzionala, salatzen ditu). Biolentzia iraultzailea, inoiz esan izan denez, instituzioren batzuen kontra baino gehiago, instituzioren kontra doa, historiaren kontra, biolentzia historikoaren kontra.

Iragapide eta transformazio momentu honetan ere euskaldunok bizi-bizi sentitzen dugun biolentzia historikoaren kontra.

Alegia, biolentzia historikoa ez da noizpait izandakoa bakkarik (Nafarroaren konkistan, karlistadetan): orain ere badirau eta badihardu, gogorki. Biolentzia historikoaren presioa da, azkenean, zenbait planteamoldetan ibiltzera behartzen gaituena oraintxe bertan (autodeterminazioa?, Estatutua?...), h.d., gure planteamenduak, beste indartsuago baten planteamenduaren barruan egin behar izatera, harek toleratzen dituen planteamenduak bakkarik egin ahal izatera, edo bestela «biolentzia iraultzailea» erabili behar izatera, «terrorista» bihurtuz. Biolentzia historikoa da, beti Nagusiak nahi dituen planteamoldeak eta eskemak onartzera, beti Nagusiak esaten duen bidetik ibiltzera, behartzen duena menpekoa. Konstituzioaren problema, adibz.: Euskadin izandako resultatuek ez dute azkenean deus balio, arazoa Estatu mailan dago eta planteaturik; guretzat, ordea, gure mailan dago planteaturik. Horixe da kontua. Baita ere: zergatik dago Nafarroa Euskadi den ala ez hauzitan ibili beharrik Madrilekin, biolentzia historikoaren persistentziagatik baino?... Orain denok nahi omen dugu euskal arazoari soluzioren bat eman. Baina «euskal» arazoaren soluzioa, denok dakigu, azkenean Madrildik pasatzen da. Madrilen dago giltza. Zergatik? Zeinek eman dio Madrili kargu hori, biolentzia historiko tro-noan ezarri eta establituak ezpada? Biolentzia historikoa —Nafarroa harmaz eta tranpaz konkistatu zuena, esate baterako— orain legitimitate natural bilakaturik dago. Estatu bilakaturik dago. Guk geuk, euskaldunok, edozein bide eraman nahi dezagula ere, beti «bestearekin» tratuan ibili beharko dugu, *gure* arazoa konpontzeko, eta «besteak» (Madril, Paris) ez du inoiz uste izango, bera «beste» denik, ez gu «beste» garenik, gu ere huraxe bera garela baino, haren parte; eta, beraz, asunto horretan gutien-gutienez guk adina zer esan baduela usteko du; eskubide osoa duela, baita guk baino gehiago ere. Guk eskubiderik al dugun, egongo da hauzitan; ez, harek zein eskubide duen. Guk ibili beharko dugu beti legitimazio eta eskubide bila. Estatuak ez dauka zergatik legitimatu. Eta, azkenean, soluzio guztiak, biolentzia historikoak dirauen artean, «kontzesio» gisakoak izango dira.

Euskaldunak, abertzaleak, biolentzia historiko horren persistentzia egunoro sentitzen du: *El País* edo *Cambio 16*-etik dispartzen diren kanpaina pozoitsuetan (hori ez da biolentzia!), Parlamentuko planteamoldeetan —zorizaiztoko «Dretxo histo-

rikoen» hauzi hartan, adbz.—, Euskal Herriarekiko hainbeste konprentzio dutela esanez hasten diren ministro eta ministro-gaiei deklarazio eta erretoliketari... Aski da testu horiek aztertzea, zer arrazonatzen eta pisatzen duten, eta zer daukaten horiek, beste aldetik, ebidentetzat, axioma gisa, arrazonatu beharrra legokeenik ohartu ere gabe, horien pentsa eta planteamoldeen oinarrian dagoen biolentzia historikoa —«nazionalismo espainola», guretzat— ikusteko.

Bai, Estatu-asuntua da azkenean: Estatuak instituzio-molde hauek ala besteak antolatu behar ote dituen (UCDren gustokoak, PSOEren gustokoak), edo eta, radikalkiago, Estatu bera desantolatu beharra ez al dagoen lehenengo, demokratikoki nahiz biolentziaz, berriro hasteko, herriaren eta nazionalitateen izenean.

Euskaldunaren begitan, Estatu ez da biolentzia historikoaren kanonizazioa besterik. Gaztelau batentzat agian identifikatu egiten dira bere sorterrri/aberria eta bere Estatu, —badakigu Estatuak berak sor dezakeela pentsamolde hori—. Horrentzat izan daiteke Estatu —bere komunitatearen espresiotzat daukanez— bere kontsiderazioen abiapundu. Euskaldunarentzat ez. Atentzio ematen duena, hain zuzen, euskaldunak egin ohi dituen kontsiderazioetan, Estatu kontzepturik, sentido honetan, ez dagoela, da, hitzetik hortzera Estatu aipatzen dizunean ere; edo, gehienez ere, Estatu, arrazoipidearen azkenean datorrela, ez abiapuntuan. Euskaldunaren kontsiderazioak herritasunetik abiatzen dira. Bere komunitate nazionaletik.

Pentsabide bat Estatuaren definiziotik hasten da (Konstituzioa hasten den bezalaxe), Estatu herrira gero etortzeko. Beste alderantziz. Direkzio kontrariotan doaz arrazoipideak. Eta munduko gauza logikoena besterik ez da, bi pentsabideok inoiz elkar ulertzen ez badute. «Espainolek», Estatu espainolean finkatzen direnek, ez dute sekula ulertuko, edozein beste arrazoi-gatik ontzat ematera edo datozenek ere, euskal abertzaletasuna. Onenean ere, anarkistaren bat edo ailegatuko da, gure planteamoldeak ulertzeratar samar.

Euskal historiako biolentzia konprentitzeko, ETArena barne, alde bat utzi beharra dago biolentzia koiuntural bat den ustea: frankismoaren ondarea, esate baterako. Problema historikoa da. Alde batetan «euskaldunen aberria Euskadi da» konzientziarik dagoen artean, eta bestean «la indisoluble unidad de la Nación española» Konstituziorik dagoen artean, biolentziaren iturriak ez dira agortu Euskadin. Poliziak ETAko militante denak, banan-banan, granorik utzi gabe, garbi ditzake, edo behar bada

kontsumismoak eta nagikeriak lotaraz dezake denborarekin euskal gizartea, borrokarako gogoia itzaliz: baina ez dadila pentsa, horrela problemari soluzio eman zaionik. Nik behintzat ez dut garantiarik batere ikusten, hamar urte geroago ez dela beste ETA bat, edo «IRA» bat, berriro sortuko. Problema bai, baina biolentziarik ez, egoteko, instituzio demokratiko batzuk aski ez direla, Frantziak eta Ingalaterrak, adbz., nahikoa erakusten digute. Biolentzia ebitatzeko, problema dagoen tokian soluzioa egotea da, bide bakarra.

Honekin, biolentzia esplikatzearen kapitulutik, soluzio bat aurkitzearen kapitulura heldu gara.

Arazoa politikoa da

Arazoa, luzarora behintzat, politikoa da, ez poliziakoa. (Poliziak momentuko «soluzioren» bat ekar dezake onenean ere). Eta hemen berezi beharra dago. Alde batetan, Madrilgo politika dago, «kontzesio» haundiagoak ala ttiptiagoak egiteko pronto: UCD, PSOE, etab. Abertzale asko dira, edozein Alderditan, PNVtik Herri Batasunera, esaten dutenak: «UCD ala PSOE, berdintsu da guretzat azkenean»... Badakigu esaldi hori sinplista dela, baina bere modura hartu behar da. Gauzak hola ikusten diren artean, *azken helburu batzuei buruz berdintsu dela*, esan nahi da, eta beti izango da posible PNVtik berriz ere beste ETA bat irtetea; lehen ere PNVtik sortu zen ETA. Badakigu, noski, berriro ere, ETAREN esplikazioa ez dagoela motibazio abertzaleetan bakarrik. Baina hori alde bat utz genezake orain, bai PNVk eta bai ETAK berak aski azpimarkatzen bait dute hori. Beraz, alde batetan Madrilgo politika daukagu («estatalismoa»), bestean indar abertzaleak. Eta Alderdi abertzaleon artean bertan, Madrildik beharbada diferentziak ikusten ez badira ere, erizkera kontrarioak dauzkagu biolentziari buruz.

Lehenengo, biolentzia ez da kondenatzen, «biolentzia kondenatzen dugu», esanez, Bilboko kale nagusietan milaka jendeek esanda ere.

Biolentzia kondenatzen da, biolentzia baino bide hobe bat aurkituz, euskal arazoari soluziorik emateko. Ez bestela. Soluziorako, ordea, Madrilek ere badu parte. Eta hortxe dago kaxoa: nola jokatu behar dugu Madrilekin?

Orain, esaten dute batzuek, gauzak aldatu egin dira: hobe da biolentzia gabe. Ezer ez da aldatu, ostera ohi du bestea.

Xehetasunak utzi eta, azkenean, biek arrazoi dutela, egiten digu inpresioa: bi maila diferentetan hitzegiten dutela.

Zer da, edo ez da, aldatu? Eta zeri erreferentziaz esango dugu, ezer aldatu den ala ez?

Biolentzia estrukturala (legeak, etab.), instituzionala, Bote-reak Euskal Herriaren gain bere formagatik beragatik egiten duena, dudarik ez dago, aldatuz doala historian eta Francoz gero aldatu dela: arrazoirik ez dute falta, frankismotik «demokraziara» alderik badagoela, deritzatenek. Biolentzia errepresiboa ere (polizia, torturak, etab.), agian ez da lehen bezain zakarra, asko ez bigundu arren. Biolentzia historikoa, ordea, bi horien sostengua eta bi horien transformazioari mugak ezartzen dizkiona, h.d., Estatuaren kanonizazioa edo nazionalismo espainoia, zenbait aldatu da? Biolentzia historikoa estruktura demokratikoekin eta errepresio zibilizatuekin eskuz-esku ibil daiteke: eta hori da, Gobernu batekin ala besterekin, transformazio batzuekin ala gabe, guretzat berdin dela, ostera ohi dutenek, adierazten dutena; ezer ez dela aldatu. Aldatu denak ez du ezer aldatzen. Esklaboa hankatik lotuta zeukan gatea luzatu egin da; esklaboa, orain mugi daiteke metro batzuk gehiago zabalean, baina beti ere esklabo, beti hankatik lotuta.

Dena dela, zer da, ETAREN bidetik, edo Herri Batasunaren bidetik, irabaztea itxaron genezakeena? ETAK sinpatia asko izan duela, duela oraindik, pozgarri ala negargarri, baina errealtate garbia da. ETAK bere eginkizuna izan duela ere, ona ala txarra, alferrikakoa genuke orain eztabaidatzea. Izan denak ez dio axola; izango denak arduratzen gaitu.

ETAREN aldeko postura aztertzen badugu, arrazoi positiboak eta negatiboak erabili ohi dituela, ikusten dugu. Negatiboak: beste guztien ahuleria, klaudikazioa, erreformismoa, etab. salatzea. Indar gehiena arrazoipide honi ematen zaiola, iruditzen zait. Arrazoi positiboek, ETAK zenbat irabazi duen, erakutsi nahi izaten dute. ETAREN bidetik jarraituz zenbat gehiago irabaziko omen dugun: independentzia, sozialismoa, etab. Aukera politiko baten eta efektibitatearen sentidoan, behintzat, niri eskapatzen zaidan gorabchera da, ETAREN bideak zenbat balio duen ala ez duen, euskal arazoaren soluziorik ekartzeko. Arrazoi askogatik. Baina lehenengo, eta azken-finean, azkeneko, deus ez dakigulako ETAK errealtatean zenbat indar duen, jomuga haiek erdiesteko.

Oraingoz behintzat, urrungo gauzak dirudite independentziak, sozialismoak, etab. Holakorik tiroka nola ekar genezakeen ima-

ginatu ezin dugun imaginazio eskasekoak ere ez gara guti: alegia, «biolentzian sinesten» ez dugunak, soluzio bide bezala.

Soluzioa politikoa da

Soluzioa politikoa da, esan dugu, ez poliziakoa. Eta berdin esaten dut: soluzioa ez da militarra, politikoa da.

Beste arazo bat da, halare, soluzioa azkenean politikoa izan arren, ez militarra, borroka harmatuak bere eginkizunik eta lekurik ez al daukan. Borroka harmatua ez al den politikoa.

Momentu honetan etsai asko du biolentzi bideak. Ez, Alderdi estatalisten aldetik eta Madrildik bakarrik; indar abertzale batzuen aldetik ere bai. Alderdi «posibilisten» aldetik.

Beharbada *diferentziak*, *printzipiozkoak* aparte, batzuek eta besteek planteamoldeetan jomugak nola situatzen dituzten, sortzen dira: azken jomugak baditugu beti gogoan, eta aurren-aurrenik haiei begira egiten baditugu planak h.d., *dena* badugu gogoan, ez parteak, agian «erreformismoak» ez du esperantza askorik permititzen eta biolentziazko bidea, besterik ez egoteak justifikatzen du. Beirhalako jomuga batzuk gehiago baloratzen baditugu, aldiz, biolentzia kaltegarri ager daiteke eta borroka politikodemokratikoa efektiboago...

Ibili, bistan dago, ibil litekeela erreformaren barruan. Eta eskura litekeela zenbait gauza, eskura dugun baino gehiago duda gabe (katalanen zuhurtzia aipatzen da). Baina zenbat? Zenbat izan liteke, gehienez ere, demokratikoki eskura genezakeen guztia? Asko kostatzen da, behintzat, sinestea, Madrilen kontzesioak inoiz hartaraino ailegatuko liratekeenik, euskal Aginpide autonomoa halako dinamika bat desarrolatu ahal izateko egitamuz eta fakultatez hornitzeraino, non berez eta beregainki euskal arazoa berak burubida lezan. Zartagin horren kirtena beti Madrilen eskuetan egongo dela, burlatzen dira «antirreformistak».

Hain zuzen biolentzia historikoarengatixe, korroan sartzen diren euskal Alderdiak, bolentzia gabe, etab., «gehiengoaren» dantza dantzatu beharrean kausitzen direla, ikusten dugu. Gehien-goia Gobernua da. Zein bide dago, Gobernua kontzesioak egitera behartzeko? Bilboko manifestaldi «antiterrorista» egin zenean eta, entzun genituen, bai, baitespen kozkor borobiltxoak: erresistentzia baketsua egingo zela, eta beldurgarriago izango zela biolentzia baino, etab. Gero ez dugu ikusi erresistentzia bake-

tsu horren beldurgarritasunik, ez efikaziarik, eta ez nola inpresio egin nahi dioten eta errespetua sartu Madrili, ez nola nahi dizkioten kontzesioak atera, ez deus. Alderantziz: Madrilek nahi duen guztia egiten duela gurekin, gelditzen zaigu inpresioa. Burla egiten digula. Eta disimulatzen ere nekatu gabe. Erreferenduko resultatuek, etab., Gobernuari bere postura intransigenteak berpentsarazten ez badizkio, agian ETak behartuko du hortara?, pentsatzen da orduan. Eta egingo ez badu ere: burlaka ari zaiguna kastigatzen du behintzat, eta horrekin jende umilatu eta zapaldu desengainatuaren sentimentua satisfatzen du ETak (elementu psikologikoa). Madril jokutzen ari den bezala, oso zaila egingo zaie Alderdi abertzale bakezaleei, herriari erakustea, hobe dela beren bidea, ETarena baino. Horretarako Madrilek ere Alderdi horien jokoan sartu beharko luke eta ez da sartzen. Resultatu nabarmenik ageri ez den artean, ez dago konfiantzarik Euskal Herrian, bake bidez, urrutira joan litekeenik. Alferrik da biolentzia deitoratzea. Biolentziak, gutienez biolentziaren kontra mugimendu haundi bat sortu arte irauango du; eta Madrilek ez du, Euskal Herria biolentziaren kontra mugitzen hasteko, arrazoirik batere ematen.

Gure planteamenduetan, ez gabiltza biolentziaren aurretik, ez da hori ahaztu behar, h.d., ez gara ari biolentziaz hitzegiten, biolentziarik sor ez dadin; baizik eta biolentziaren ondoren. Biolentzia iraultzailea hor dago, biolentzia instituzionala bezalaxe. Eta honek bezalaxe, legitimitate maila bat irabazia dauka Euskal Herrian, nahiko altua. ETarena ez da legitimitate maila oso altua izango (betiko lelo hura: ETA minoria kaxkar bat dela); baina Botere zentralaren legitimitatea apenas dabil gorago Euskal Herrian. Hemen dagoena, hain zuzen, legitimitate falta da. Euskal arazoaren soluziorik entseiatzeko legitimitaturik legokeen egiazko instantzia baten falta. Ez dago Autoritate legitimorik —bide, politika— arrunt aitorturik, ETA kondenatzen duen askok ez bait du gutiago kondenatzen Gobernuaren politika. Bere legitimitatea garbi erakus dezan beste bidea, ordea (PSOE, PNV, EE), ezein izatekotan, resultatu positiboak erakus ditzan bidea izanen da: baina resultatu positiborik erakusteko Gobernuaren kolaborantza beharko da... Itzulnguru itsua.

Soluzioa, demokrazia al da?

Franco hil zen. Urteak alferrik samar badoaz, orduan itxaroten genituen gauza gehienei (Estatutu, etab.), oraindik ere pa-

zientziaz itxaroten jarraitzen dugu. Luzapenak berak suari egurra botatzen dio.

Ez dakit azterketarik egin den, baina nire inpresioa da, biolentziak berriro arrera hobea duela, orain bi urte baino. Orduan Gobernuak egokiera polita izan zuen, eskuzabaltasun apur batez —borondate onezko jestu batzuekin, besterik ez bada— biolentziari aurrea artzeko eta bidea hersteke. Ez zuen egin: beharbada, eskuinaren miramenduz, eskuinaren beldur zelako, edo, bere ahulerian, sostengua «ezkerrean» inolaz ere bilatu nahi ez zuelako. Horrela pasa dira orduak. Euskal Herrian berriro desengainua zabaldu da.

Orain zer nahi du Gobernuak? Askotan Gobernuari ETA egotea interesatzen zaion inpresioa egiten digu, indarrak bere inguruan bilduta edukitzeko. Su bat, Estatuaren bazterrean, kontrolagarri iruditzen zaion artean.

Baina suarekin, esaten da, ez da jolas egiten. Suaren kontrola erraz galtzen da mendian. Eta haize kolpeak berriz ere ez dira mendiotan falta, sua zabaltzeko.

Biolentzia gabe ezer ez digutela inoiz emango, jende asko hasi da berriro pentsatzen. Eta okerrago da orain lehen baino: frankismoan inork ez zuen sinesten, baina demokrazian askok sinestu dugu. Parlamentuak egin zigun burlarekin, ordea, eta deklaratu gabeko Salbuespen-Egoera honekin, okupazio poliziatiko honekin metroz-metro, kontrolekin, kaleak betetzen dituzten mitrailetekin, gartzela berriro beteekin, Frantziak iheslariak polizia espainolari eskura entregatzearekin, etab., laster demokrazian ere inork ezin sinistuko du.

Azkenean sinestarazi egingo digute, guretzat bide bakarra da-goela, faxismoan nahiz demokrazian...

Egoera honetan, azkenerako, esperantza galtzen bada, sentidoa galtzen du printzipioen arazoak, situazioan lekurik ez duela: alegia, demokrazia batetan biolentzia zilegi al den, nazio baten bizitza salbatzeko, etab. Eta biolentziaren problema guztia, arazo politiko hutsa bilakatzen da: oportunitatearen ala ezaren problema.

Biolentziak demokrazia arriskuan jartzen omen duela, arrazoiak, beharbada geroz eta euskaldun gutiagori inpresio egiten dio. Zergatik salbatu beharko lukete euskaldunek, berak salbatzen ez dituen demokrazia bat? 36.ean egindakoa, behin egitea nahikoa da.

Biolentzia, politikoa al da?

Euskal Herrian horrela dago gaur planteatuta biolentziaren problema: politikoago da biolentziarekin jokatzea ala gabe? Biolentziarekin ala gabe da efektiboago gure borroka?

Ageri da, biolentziaren problematikako zati inportante bat bazterrean geratzen da horrela: borroka harmatuaren printzipiozko eztabaidagarritasuna. (Biolentzia desberdinak egongo dira —instituzionala, etab.— eta denak biolentziak izango dira, elkarrekin lotuak ere; baina ez dago denak berdintzerik: gauza bat da inori trabak eta zentsurak ipintzea, beste bat bi tiro ematea). Egiatzko planteamoldeak, halare, egon dagoen errealitatearenak, egon dagoen bezala, ez dira teorien gabinetean asmatzen, errealitateak berak inposatzen ditu. Guri horixe gertatzen zaigu. «Edozein biolentziaren» kondenak, horregatik, grazia guti egingen du.

Esito gehiago biolentziari buruzko eztabaida politikoak izan dezake.

Biolentziaren kontrakoek, biolentzia, Euskadin, antipolitikoa zaigula, arrazonatzen dute: etorkinen integrazioa eragozten duela, Nafarroa urruntzen digula, etab.

Biolentziaren «aldekoek» (biolentziaren aldekoa inor ez da, zentzu hertsian), borroka politikoaren eta harmatuaren uztarke-ta proposatzen dute: «bietan jarrai». Alegia, horientzat biak bat dira. Biolentzia politikoa da. Guri geratzen zaigun politika bakarra.

Horra, bada, korapiloa: borroka harmatuak eta politikoak elkar osatzen ote duten, ala eragotzi. Ezkontza hori nahi ez duten euskal Alderdiak aparte utzirik, zer duda, Madrilek bada-kiela, ez duela ezertan gehiago saiatu behar, ezkontza hori haus-ten, edo eragozten, baino. Eta Madril ez da ahal duena egin gabe geratuko.

Bi mutur dauka biolentziak: Gobernu-ETA. Biak gogor. Orain, gehiago lortzen ez bada, ETAREN errua dela esaten ari dira batzuk. Autonomia lortzeko ETA ez omen da eragozpen besterik. Gobernuaren intransigentzia bera, ETAREngatik izango litzateke... Gobernuak, egiten edo egin gabe uzten duena, esplikatzeko, kulpak ETARI botatzea, bere logikan dago. ETAREN problema Euskadiko Alderdiei txantaje egiteko aprobetxatzea ere, konprenitzen da. Baita ETARIK ez balego Madril eskuzabala-go agertuko litzatekeela? Salakuntza horrek, egia balitz ere, errazegi hartzen du, darabiltenen inpotentzia estaltzeko aitzakia-

ren itxura. Eta kosta egingo da, hori egia denik sinesgarriro azaltzea. Justu alderantziz arrazonatu izan du ETAK: eman genuen guk tregoa bat; Gobernuak ez zuen deus egin bere borondate ona eta soluzio batetara ailegatzeko gogoia, erakusteko... Bana. Ongi, biolentziarena pelota partida bat balitz...

Zer dauka gaur Euskadik, Madrili, biolentziarekin ordez, buru egiteko? Alderdi maioritariak?... Beti ere posibilitate bat da, pentsatzea, ezker abertzale guztia, biolentzia utzi eta, Alderdi sozialista sendo batetan bilduko balitz, arras bestelako panorama edukiko genukeela Euskadiko Alderdi konstelazioan; eta, orduan, bestelakoxe politika egin ahal izango genukeela Madrili buruz; eta Madrilek ere bestela jokatu beharko lukeela gurekin, etab. Beharbada hortik posible izango litzateke soluzioren bat. Baina honek denak, oraindik oraingoz, elkarrekin ezkondu omen ziren Balitz eta Balu haiek ematen du: haurrik ez. Gainera, asmo hain simple hori, konkretazera pasa orduko, oso konplexoa bihurtzen da. Ezker abertzalearen batasuna: Gabonetako gerizak.

Beste posibilitate bat, agian, egungo nahasterian indar abertzale sozialista bortitz bat gailendu eta lehenbailehen burutzea izan liteke, PNV eta PSOErekin gurdia ataskotik ateratzeko dinamika berri bat ekarriz... Asmoren batzuek hemendik jotzen bait dute egunotan. Zilegi ote zaigu itxaropen apur bat?

Niretzat biolentziaren problemak ez du beste soluziorik, eskal arazoaren soluzioa baino. Bitartean, esan genezake, biolentzia kriminala dela, edo biolentziaz ez daukagula independentzia irabazterik, edo nahi duguna. Horixe behintzat, hori, bestela errazago eskura daitekeenik, nekez erakutsiko da, independentzia. Beste gauzak, Estatutua, etab., zenbait «kontzesio», biolentzia gabe eskura litezkeela, sinesgarri da. Baina errazago biolentzia gabe, harekin baino? Eta, gainera, horiek lehen jomuga batzuk baizik ez badira, erakutsi egin beharko da, urrunago jarraitzeko, «nazioa berregiteko» eta, esan ohi den legez, biolentziak ez duela sentidorik. Askok uste bait du gaur, Estatutua, etab., oso ongi daudela, bai; baina horiekin kota minimo batzuk pasatzekotan, hor planto ez egitekotan, borroka eta iraultza-izpirituari eutsi beharra dagoela bizi-bizi.

Hor dago korapiloa: independentzia nahi da ala ez da; Estatutuarekin konformatu nahi da ala ez da.

Baina utz dezagun independentzia (hitz ekibokoa da, noski). Zeinek sinesten du, Madrilek ezarri Euskal Gobernu batek, Autonomi Estatutu eta guzti, bere UCD, PSOE, PNV eta besterekin, Madrilek erabaki fakultateekin eta Madrili gogoia ematen

dion traba guztiekin, Madrilek diktatu joko-arauekin, euskal nazio banatua berregiteko politika energiko askirik desarroila lezakeenik? Estatutua, ongi da: eta gero?...

Abertzaletasunaren azkeneko helburuak ez dira, noski, Estatututxoren bat, edo mikeleteak berrezartzea, edo guk ere ikurrinaren kolorez sapailoak apaintzea. Hego Euskadi batu behar da. Euskadi berreuskaldundu egin behar da (eta, besteak beste, bakearengatik: elkarrekin nahasian bizi diren bi komunitate arrotzek, bi komunitate etsaitan bukatzen dute). Ipar Euskadirekin lotu behar da, orain ez dakit nola. Autonomia sendotu behar da: alde guztietatik, hots, kulturalki, ekonomikoki, etab. Beraz, dinamika nazional bortitza bat behar da, hori dena egiteko. Baina utziko al dio Madrilek holako dinamizazioa Gobernu Autonomoa izango omen denari? Eta, utziko balio ere (Estatua, biolentzia historikoa, dexente inplantaturik dago hemen bertan buru-bihotzetan), eginkizun luze eta nekagarri honetan, ez al litzateke faktore dinamizatzailerik izango borroka harmatua?...

Alderantziz ere pentsa liteke, pentsatzen da: bide zail hori zailagotu besterik ez dutela harmek egiten...

Edo pentsa liteke, alderantziz berriro: ETAririk ez balego, oso lan guti izango luke UCDeK, PNV eta, toreatzan...

Pentsatu, edozertsu pentsa liteke. Batzuek eta besteek dituzten arrazoiak, ikusten joan behar. Bitartean, denek bakea nahi omen dute. Biolentzia ez omen du inork nahi. Batek KASen puntuekin bakeatuko luke Euskal Herria. Besteak Martin Villaren hamabost puntuekin. Benegasek dioenez, PSOEK konponduko luke hau dena.

Dagoena dago. Eta hemen biolentzia dago. Ez ezker abertzalearen batasunik dago, abertzaleen batasunik are gutiago, eta ez Gobernuaren borondate izpirik dago, euskal arazoari irtenbiderik emateko. Borroka harmatua gaizki eta politikoa okerrago.

Eta, beraz, niretzat inolaz ere ez da biolentzia, Euskadik gaur daukan problema larriena, pertsonalki mingarriena bera izan arren.

Momentu honetan, beraz, problema ez da, biolentziari ez zaiola ikusten soluziorik; soluzioak inondik etorri behar duenik, ez dela ikusten, hori da problema. Egoera honek soluziorik ez badu, biolentziarik bai, ala biolentziarik ez, berdin, ez da problema inportantea. Beste nondibait laguntzen ez badu, behintzat, ez dakidan federen batek...